ZABALTZEN DOKUMENTAZIO ZENTROA
5
TXT 20111

# GIPUZKOAKO LAB IRAKASKUNTZA SEKTOREAREN

## PROPOSAMENA.

Gipuzkoako Irakaskuntza sektorea, "Antolaketaren egoera" delako txostena aztertu eta eztabaidatu ondoren datozen iritzi hauetara iritsi da.

Gaur egun, eta irakaskuntzari dagokidalarik, eztabaida eta ideien kontrasterako gune naturala sektorearen estruktura bera jotzen dugula.

Estatutuen 12.a.2 artikuluaren arabera eta ontzat harturik batasun lokalari buruz txostenak sail sindikaletaz dioena (lortu beharreko helburu gisa), sektore eta azpisektoreak "**Lantokitik abiaturik eta iharduera sektorearen arabera, eskuhartze espezifikoa behar duten arazoei (Negoziazio kolektiboa, kontratazioa, lan baldintzak, uztarazteak, ekonomi egoera,...) kolektiboki erantzuteko xedez, langileak bertikalki antolatzen dituen egitura da**" direla ikusten dugu [**Estatutuen 12.a.1 artik.**]. Irakaskuntza kasuan Euskaratzen prozesua, Euskal Eskola Nazionala e. a. hartu beharko lirateke aintzat.

Sindikatu sozio-politiko, izanik, gure ekinbidea Euskal Herriko errebindikazio ekonomiko, politiko, eta sozialak aintzat hartuz planteatzen dugu. Era berean, sindikatu abertzale eta euskaltzale gara, eta beraz, naziogintza lantzeko ardatzen inguruan kokatzen da gure eguneroko borroka; alegia, Euskara, Euskal kultura eta Euskal Eskola Nazionala.

Beraz, irakaskuntza kasuan nekez ikusten dugu egon daitekeenik, sektoreari eta, hortaz, sindikatuari dagokion informazio, egoera, azterketa e.a.ren azalpena batasun lokalaren bidez, zeren ideien kontraste eta eztabaida, eta erabakiak hartzeko guneak beste goragoko batzuk izango baitira ezinbestean. Planteamendu honekin jarraituz gero, sindikatuaren funtzionamendurako batere onuragarria izango ez litzatekeen burokraziaruntz joko genuke.

Era berean, eta anekdota gisa, harrigarria da herrialdeko idazkaritzaren eginbeharretako bat sektoreko estrukturei lokalak eta ahalbide materialak ematea dela ikustea, sektore eta idazkaritzaren artean beharrak azaltzeko uztarketarik ez dagoenean. Ikusten dugu baita, proposamenean estruktura sektoriala eta territorialak elkar egokitzeko beharra antzematen dela. Haatik, jadanik egituratuak dauden sektoreak ez dira herrialdeko idazkaritzan txertatzen eta, haren beharrean, egitura territorialaren sendotze bat ematen da.

Argitu, era berean, honako funtzioen zehaztapena antzematen dela orokorrean: egitura territoriala = ekintza soziopolitikoa. Egitura sektoriala = ekintza sozioekonomikoa. Hau erabat okerra da irakaskuntzaren kasuan goian genionaren arabera.

Bada, hegoaldean irakaskintzan LABen afiliaturik dauden 1.500-en bateko langileen ekarpenak bideratzeko herrialdeko idazkaritzan eskubide osoko partaidea izango den herrialdeko irakaskuntzako arduradunaren bidez egin beharko dela ikusten dugu.

Donostian, 1.995.ko Otsailaren 16an

Gipuzkoako LAB Irakaskuntza.

**Irakaskuntza de Guipuzkoa** tras el análisis y debate de la propuesta denominada "Desarrollo organizativo" Ha llegado a las siguientes conclusiones.

Se considera que hoy en día, y en lo que a Irakaskuntza se refiere, el lugar de encuentro natural para el debate y la contraposición de ideas se encuentra en las estructuras del sector.

Considerando necesarias las secciones sindicales tal cual vienen especificadas en los estatutos **[Art. 12 a.2.]** y entendiendo como valido (A nivel de objetivo a lograr) lo planteado en la propuesta a debate **[apartado 1.1]** referente a la unión local, estimamos que **el sector y los subsectores** "*son las estructuras que a partir del lugar de trabajo y en función de la rama de actividad va integrando a los trabajadores/as en un sentido vertical para responder de una manera colectiva ante problemáticas especificas de intervención (Negociación colectiva, contratación, condiciones de trabajo, ceses, situación económica,...)*" **[Art. 12 a.1. de los estatutos]**. Y que en el caso de irakaskuntza incluirían cuestiones tales como Euskaldunización, Escuela Nacional Vasca, etc...

Siendo un sindicato socio-político desde nuestro lugar de trabajo intervenimos asumiendo las reivindicaciones económicas , políticas y sociales existentes en Euskal Herria. Asimismo somos un sindicato abertzale y euskaltzale y esto sitúa al sector de irakaskuntza en una situación muy determinada para la lucha por la creación y el desarrollo de diferentes aspectos que son fundamentales en nuestra pelea diaria para la estructuración de nuestra nación (naziogintza), a saber: Euskaldunización, Cultura vasca, Escuela Nacional Vasca.

Se entiende pues que en el caso de Irakaskuntza difícilmente va a existir posibilidad de transmisión de información, situación , análisis etc. de aquello que afectara al sector y por lo tanto al sindicato a través de las uniones locales o comarcales puesto que los lugares finales de recogida y contrastación de ideas y los de tomas de decisiones etc. serían necesariamente superiores a estos... Por lo que de seguir con este planteamiento tenderíamos a un cierto burocratismo que no beneficiaría en nada al correcto funcionamiento del sindicato en su integridad.

Asimismo y a modo anecdótico es cuando menos curioso que uno de los quehaceres del secretariado provincial sea la dotación de locales y medios necesarios a la estructura sectorial sin que exista nexo de unión del secretariado con los sectores que posibilite que estos últimos transmitan sus necesidades. También constatamos que en la filosofía de la propuesta se destaca que es necesario la imbricación progresiva de la estructura sectorial y la estructura territorial, sin embargo no se corresponde ello con la presencia de los sectores ya estructurados en el secretariado provincial, constatandose por el contrario un reforzamiento de la de la estructura territorial.

Aclarar También que parece entreverse una especificación de funciones correspondientes del siguiente modo en lineas generales : estructura territorial = acción sociopolitica. Estructura sectorial = acción socioeconomica. Siendo este un planteamiento completamente erróneo en lo que se refiere a irakaskuntza, como ya se ha explicado en un párrafo anterior.

Es por ello que entendemos que el mejor modo para que los aproximadamente 1.500 afiliados de LAB en irakaskuntza en hegoalde, transmitan sus aportaciones, es por medio de la presencia del responsable provincial de irakaskuntza en el secretariado provincial como miembro de pleno derecho.